

Euskal Herriko lehenetariko

**...oiñ dala 30 urte erre zan Ermuan!
Eta ez da ahokadia,ez! Holako gauza
baten, aurrenekuen artian egotia
txatxarkerixia ez dala begintxandu
jaku eta hari historikotik hasi garenian
tiraka, edarra ezustekua izan dogu:
lehen urte horretan, abenduaren 31an
eitxiaren motibuaren bertsio
desberdiñak topau ditxugu. Guri
bixak jasotzia egokitzen jaku; han
egon zirenei txikiteo orduan
eztabaidatzia.**

1972. urtia amaitzeaz. "Scout"ean batzen zan herriko gazte gehixengua. Salaberrianeke etxia erabiltzen eben euren billera eta erabaki leku bezala. Victor Morla eta Jesus López abadien aholkupian hasi zian gabonetarako zeozer prestatu bihar ebela eta pentsatzen. Entzunda eken Irun eta Deustu aldian kalez-kale eruaten zala Olentzero izeneko ikazkin irudiko panpin bat; berezko kantu bat be baekala eta letriori jiratzekotan geratu zian. Derioko seminarixuko liburutegixan arakatu ondoren, Ermura ekarri zitxuezen iñork ordu-rarte ezagutzen ez eban zorixoneko Olentzeruorren jakinbiha-rekuak.

Honarte ondo; berriemoile danen gogorapenak bat eiñda datoz, baiña beste herri batzutan 24an ospatzen dala eta Ermuan Gabon zahar egunian erretziaren aurrian, bide desberdiñak hartzen ditxueez:

"...Abestu bihar genduzan kantu danak euskeraz zian. Hortxe lehenengo aldakeztana, hortxe oztoporik gogorrena orduko sasoirako, Patxi ondiñok bizirik euan eta. Erderatu eta Bilbora bialdu bihar izan zian, zentsuraren iritziz kantuok esan eziñeko zeozer baeken ikusteko. Haren erabagixaren zain gu, dizienbriaren 24a gaiñian eta ez etorren Gobernu Zibillaren bisto buenorik. 25a, 26a... 31a. Ditxosozko baime-nori Gabon zahar egunian, eguna pasatuta euala ailegau jakun. Dana genduan prest, zergaitxik laga ba hurrengo urte-rako? Gaba horretan erre zan estreñnekoz Ermuan Olentzero.."

Badagoz baiña urte horretan Olentzero iñungo arazo barik plazaratu zana akorduan dakatenak, hurrengo urteren

1972. urtian Cosme Garciak etaratako erretratua




baten kokatzen dabezenak zentsuraren anekdota hori. "Hamabost egunetan prestatu genduzan patrifilio danok. Jesusek eta Victorrek zuzendu eta "Scout"eko taldekidiok arduratu giñan eiñbiharreko guztixekin: panpiña eta haren estrukturia eiñ, erropia jirau, jendia batu, entsaio egunak adostu... 31an selebratzia pentsatu zan asti larregirik ez euala-ko eta neguko soltziziuarekin zerikusixa ekalako. Lehenengo urtian legalismo arrasto barik eiñ zan, itsu-itsuan, eiñ bihar gendula eta eiñ. Hurrengo urtietan letrekin eta arazuak egon ziala? Izan leike. Oiñ, Olentzerua erre osteko guatekea ahaz-tu eziñekua da!."

Era batera edo bestera, urte bete beranduago be 31an erre zan. Eta 30 jua dia.

Olentzeroa prestatzeko lanak

Oiñtze eta orduan be burua izaten zan gehixen ikusi eta itxurarik onena euki bihar zebana eta harek hasierako urtietan




optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 71

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona*

Olentzerua...



José Félix Igartua, Iñaki Mirandona eta Mitxel Totorika arduratu zian buruari itxuria emotiaz. Olentzeroren estruktura eta jarritxa eruateko egurrezko andia Eskola Armerixako harotza zan Felix Totorikan kargupian euan. Entsaiuetara 50 lagunetik gora hurreratzen ziran eta pare bat urtez Victor abadiak zuzendu zitxuan; gero Santi Totoriak ekin zotsan zuzendari lanari. "Con aire de zortziko" kantatu bihar gaiñera, horixe esanda gogoratzen zotsien eta "Olentzero"ren melodixiaren bizitxasuna.

Olentzero erretzen dauala abesten dan kantutxua "Aspaldiko Olentzero", Victor abadiak asmautakua dala diñue batzuk. Ez dogu hau egiaztatzeko modurik euki. Baiña ez dozue uste saltsa gehixao emoten dabela holan, erdiz-erdiz, laga ezker? Ahor ba, txikiteo ordurako beste eztabaida bat!

Estibalitz González

Gabonetako haur kanpainen berrikuntza ugari

Urtero bezala Ermuko Udalak gabonetarako ekitaldi anitz prestatu ditu haur kanpainarako. Sallabenteko Gazteak, Gurutze Gorriak, Antxitxiketan Begirale Taldeak, Txindurri Txistu eta Dantza Taldeak eta Ermuko Kultur Zentruak hartzen dute parte gabonetako kanpainen.

Izan ere, abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra bitartean txikiak ez dute asperitzeko astirik izango. Haur parkea, ur parkea, antzerkia, zirkoa, Olentzero eta Erregeekin dibertitzeko aukera izango dute.

Ohikoa denez, abenduaren 26an gabonetako haur parkeak bere atea irekiko ditu baina aurretik Udak kiroldegian jarriko da eta aurreko urteetan ez bezala, 8 egunez egongo da zabalik. Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra alegia. Bertan, airezko gazteluak, motor elektrikoak, ohe elastikoak, ludoteka, tailerrak eta haurrentzako jokoak egongo dira goizez, 11etatik 13etara eta arratsalde 16etatik 20etara. Eguneko sarrera 2 eurokoa izango eta 10 eurotan 8 eguneko bonoa eskura daiteke.

Abenduaren 31an, arratsaldeko 18:00etan Olentzerua izango da Ermuko kaleetan barrena Txindurri Txistu eta Dantza Taldearen eskutik. Urtero bezala, egun horretan ohikoak diren kantak entzun ahal izango dira Olentzeroren kanpainen. Herrian osteratxoa egin eta gero, 20:00ak aldera Olentzerua Kardenal Orben erreko da.

Antzerkia eta zirkoa

Urtarrilaren 2, 3 eta 4an Ur parkea antolatuko da Udak kiroldegian 11:00etatik 13:00 etara. Bazkideek doan izango dute sarrera eta gainontzekoak 3,60 euro ordaindu beharko dituzte. Hala ere, 3 eguneko bonoak merkeago salduko dira.

Urtarrilaren 2an, ostegunean arratsaldeko 16:00etan, Kukubiltxo antzerki taldeak "Elkidazu, lehoiek ez dakite biboliña jotzen" ikuskizuna eskainiko du Zinemaren Sarrera, 2 eurokoa izango da. Urtarrilaren 3an, ostiralean, 16:00etan Bilin Bolon zirkoa etorriko da. Ermua Zinemara. 2 Euroren truke, magoa pailazoak eta malabaristak ikusi ahal izango dira.

Gabon jai haur bukaera emateko urtarrilaren 5ean ohiko erregeen kabalgata hasiko da 18:00etan eta herriko kaleetan barrena murgilduko da, gozokiak eta opariak banatuz.

Gabonetako umeendako egitaraua

Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra

11etatik 13etara eta 16etatik 20etara

Haur parkea. Udak kiroldegian

Sarrera: 2 €. 8 eguneko bonoa: 10€

Abenduak 31, asteartea

18etan: OLENTZERO

Urtarrilak 2, 3 eta 4.

11etatik 13etara:

Ur parkea Udak kiroldegian

Sarrera: 3,60 € bazkideak doan

3 eguneko bonoak merkeago.

Urtarrilak 2, osteguna

16etan: Haur antzerkia zinemaren

"Elkidazu, lehoiek ez dakite biboliña jotzen".

Kukubiltxo taldea.

Sarrera: 2 €.

Urtarrilak 3, ostirala

16etan: Bilin Bolo zirkoa zinemaren

Sarrera: 2 €

Hilak 5, igandea


18etan: erregeen kabalgata.

KUS KUS

kale antzokia

Ermuko leku aproposena

Komentukua z/g



ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

Aldapa 1

943 17 60 52